



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2008ko ekainaren 20a

58. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

- Foru Lege proiektua, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluari buruzkoa. Hezkuntza Batzordeak onetsitako irizpena ([3. or.](#)).
- Nafarroako 2006ko kontu orokorreari buruzko Foru Lege proiektua ([10. or.](#)).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da atxiki dakion Osasun eta Kontsumo ministroak autonomia erkidegoei eskainitako osasunaren aldeko itunari. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du ([12. or.](#)).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kanabisaren erabilera terapeutikoa baimentzeko eman beharreko urratsak eman ditzan. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du ([13. or.](#)).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lehenbailehen egin ditzan Sarrigurenen aurreikusten diren osasun eta hezkuntza arloko zuzkidurak. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du ([14. or.](#)).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du 48 orduko lan-astea aldatzearen aurka dagoela eta Europako Parlamentua premiatzen du aldaketa hori bazter utz dezan. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du ([16. or.](#)).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da malgutasun-irudiak ezar eta zabal ditzan Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren barruan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du ([17. or.](#)).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, “Motor eta bizikletentzako segurtasun hesiak egokitzea” izeneko kontusailaren betetze-mailari eta aplikazioari buruzkoa. José M.<sup>a</sup> Vázquez Royo jaunak eginga ([18. or.](#)).

- Galdera, “Medinaceli-Soria-Tutera autobia (Nafarroako tartea)” izeneko kontusailaren betetze-mailari eta aplikazioari buruzkoa, José M.<sup>a</sup> Vázquez Royo jaunak egina (19. or.).
- Galdera, “Udal jabetzapeko ikastetxeetako obrak” izeneko kontusailaren betetze-mailari eta aplikazioari buruzkoa, María Victoria Arraiza Zorzano andreak egina (19. or.).
- Galdera, “Gaztelania-ingelesa elebitasun plana hedatzea” izeneko kontusailaren betetze-mailari eta aplikazioari buruzkoa, María Victoria Arraiza Zorzano andreak egina (20. or.).
- Galdera, “Lanbide heziketako ikastetxe publikoetako ekipamendua” izeneko kontusailaren betetze-mailari eta aplikazioari buruzkoa, María Victoria Arraiza Zorzano andreak egina (21. or.).
- Galdera, “Ikastetxe berriak eraikitzea eta egokitzapen obrak egitea” izeneko kontusailaren betetze-mailari eta aplikazioari buruzkoa, María Victoria Arraiza Zorzano andreak egina (21. or.).
- Galdera, “Otik 3 urtera bitarteko haurrak eskolatzeko udalekin izenpeturiko hitzarmenak” izeneko kontusailaren betetze-mailari eta aplikazioari buruzkoa, María Victoria Arraiza Zorzano andreak egina (22. or.).
- Galdera, “Nafarroako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren funtzionamendurako transferentziak” izeneko kontusailaren betetze-mailari eta aplikazioari buruzkoa, Juan José Lizarbe Baztán jaunak egina (23. or.).
- Galdera, “Abeltzaintzako ingurumen laguntzak, PDR-FEADER” izeneko kontusailaren betetze-mailari eta aplikazioari buruzkoa, María Gracia Iribarren Ribas andreak egina (23. or.).
- Galdera, “Biosegurtasunerako eta ingurumen-hobekuntzetarako dirulaguntzak abeltzaintzako instalazio intentsiboak” izeneko kontusailaren betetze-mailari eta aplikazioari buruzkoa, María Gracia Iribarren Ribas andreak egina (24. or.).
- Galdera, “Nekazaritzako elikagaien lehiakortasun, kalitate eta segurtasunari buruzko plana” izeneko kontusailaren betetze-mailari eta aplikazioari buruzkoa, María Gracia Iribarren Ribas andreak egina (25. or.).
- Galdera, jakiteko zergatik Hezkuntza Departamentuak zenbait aholkulari lanpostu kendu dituen foru erki-degoko Irakasleentzako Laguntza Zentroetan, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (25. or.).
- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak ba ote duen asmorik bizikletaren plan zuzendaria onesteko, Ion Erro Armendáriz jaunak egina (26. or.).
- Galdera, Bideko Ama Birjina Ospitaleko langile batzuek ospitale inguruan bizikletak uzteko gune estali bat eskatuz aurkeztu duten idazkiari buruzkoa, Ion Erro Armendáriz jaunak egina (27. or.).
- Galdera, bizikletaren plan zuzendaria prestatzera bideratutako kontusailaren betetze-mailari buruzkoa, Ion Erro Armendáriz jaunak egina (28. or.).
- Galdera, jakiteko Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak udalak aholkatzen dituen, elizbarrutia ondasun publikoak bere izenean jartzen ari dela ikusirik, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (29. or.).
- Galdera, Nasuinsaren eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren arteko deskoordinazioari buruzkoa, Sarrigurengo osasun zentroa dela eta, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egina (29. or.).
- Galdera, “Erantzukizun sozial korporatiboa sustatzeko programa” izeneko kontusailaren betetze-mailari eta aplikazioari buruzkoa, Galdera erretiratzea (30. or.).
- Galdera, Barne Ministerioarekin sinatutako protokoloa, espetze berria eraikitzeari buruzko asmoen gainekoa, ez bidaltzearen arrazoiei buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (30. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak errepideetako arekak, belarrak eta sasiak garbitzeko duen jarduera-protokoloari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (31. or.).
- Galdera, jakiteko zer xederi erantzuten dion Nafarroako administrazio publikoetako langileak euskaraz prestatzeko eskumenak eta eginkizunak bi unitatetan banatzeak, Paula Kasares Corrales andreak egina (31. or.).
- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak zer iritzi duen Urrobi ibaiko urek bainurako duten kalitatearen gainean aurkeztu den 2007ko txostenari, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (32. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Foru Lege proiektua, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluari buruzkoa.**

### *HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA*

Hezkuntza Batzordeak Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluari buruzko Foru Lege proiektuari buruz onetsitako irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut, Legebiltzarreko Erregelamenduko 137.3 artikuluan ezarritakoa betez. Proiektu hori 2008ko apirilaren 30eko 40. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **IRIZPENA**

Hezkuntza Batzordeak 2008ko ekainaren 17an egindako bilkuran onetsia.

## **Foru Lege proiektua, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluari buruzkoa**

### **ZIOEN AZALPENA**

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeztuari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 47. artikuluan ezartzen denez, Nafarroaren eskumena da irakaskuntza arautzea eta administratzea maila, gradu, modalitate eta espezialitate guztietan, ezertan ukatu gabe Konstituzioan arlo honi buruzko aginduetan ezarritakoa, horiek garatzen dituzten lege organikoak eta Estatuak dituen eskumenak, ikasketa eta lanbide tituluak eskuratu, eman eta homologatzeko baldintzak arautzeari eta horiek bete eta bermatzeko goi mailako ikuskapena egiteari dagokienez.

Beste alde batetik, Unibertsitatei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren 14. artikulua xedatzen du autonomia erkidegoko legeak arautuko dituela Gizarte Kontseiluaren osaera eta eginkizunak, bai eta kideak izendatuko ere, berak ezarritako parametroen barruan.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluari buruzko azaroaren 9ko 20/1994 Foru Legea onetsi zuen, baina Unibertsitatei buruzko 2001eko Lege Organiko berria eta 2007an horrek izandako aldaketa direla-eta nahitaezkoa da legeria Gizarte Kontseiluaren kontzepzio berrira egokitzea.

Gizarte Kontseilua gizarteak unibertsitatean parte hartzeko organoa da, eta gizartearen eta unibertsitatearen arteko harremanetarako elementua izan behar du.

Gizarte Kontseiluari dagokio Nafarroako Unibertsitate Publikoko jarduera ekonomikoak eta zerbizuen errendimendua eta kalitatea gainbegiratzeari, bai eta Nafarroako gizarteak unibertsitatea finantzatzeko laguntza eman dezan sustatzea ere.

Horrez gain, Gizarte Kontseiluak lagundu behar dio Nafarroako Unibertsitate Publikoari Europako goi mailako Hezkuntzaren Esparru berria eraikitzen, eta, halaber, Unibertsitatearen eta haren ingurune kultural, profesional, ekonomiko eta sozialaren arteko harremanak bultzatu behar ditu, unibertsitatearen kalitatea hobetze aldera.

Foru lege honen xedea Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluaren izaera, helburuak, eskumenak, antolaketa, funtzionamendua eta osaera arautzea da.

### **I. KAPITULUA** **Xedea eta aplikazio eremua**

#### **1. artikulua.** Xedea.

Foru lege honen xedea Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluaren izaera, helburuak, eskumenak, antolaketa, funtzionamendua eta osaera arautzea da.

## II. KAPITULUA

### Izaera, helburuak eta eskumenak

#### 2. artikulua. Izaera.

Gizarte Kontseilua gizarteak unibertsitatean parte hartzeko kide anitzeko organoa da, eta Nafarroako erakundeen, gizartearen eta Unibertsitate Publikoaren arteko harremanetarako elementua izan behar du.

#### 3. artikulua. Helburuak.

Gizarte Kontseiluari dagokio Nafarroako Unibertsitate Publikoko jarduera ekonomikoak eta zerbitzuen errendimendua eta kalitatea gainbegiratzeari, bai eta Nafarroako gizarteak Nafarroako Unibertsitate Publikoa finantzatzeko laguntza eman dezan sustatzea ere.

#### 4. artikulua. Eskumenak.

Unibertsitateei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoan ezarritakoaren esparruan, eta Unibertsitatearen estatutuarekin eta foru lege honetan ezarritakoaz baliatuz, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluaren eskumenekoak dira jarduera ekonomikoak eta zerbitzuen errendimendua eta kalitatea gainbegiratzeari, plangintza eta garapen instituzionala, eta gizartearekiko harremanak sustatzea.

**5. artikulua.** Jarduera ekonomikoak gainbegiratzeko eskumenak.

Hauek dira jarduera ekonomikoak gainbegiratzeko eskumenak:

a) Nafarroako Unibertsitate Publikoaren jarduera ekonomikoak gainbegiratzeari eta hobetzeko proposamenak egitea. Horretarako, Gizarte Kontseiluak Unibertsitateko Barne Auditoria eta Kontrolleko Unitateak legezotasun kontrolari eta efikazia eta eraginkortasun ekonomikoari buruz egindako txostenak jasoko ditu.

Gizarte Kontseiluak eskumen hori betetzeko beharrezkotzat jotzen dituen txosten guztiak eskatu ahal izanen dizkio Nafarroako Unibertsitate Publikoari.

b) Gobernu Kontseiluak proposaturik, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren urte anitzeko programazioa onestea.

c) Urte anitzeko programazio hori garatzeko Nafarroako Unibertsitate Publikoak eta Nafarroako Gobernuak izenpetzen dituzten finantzaketa hitzarmenak edo programa-kontratuak hobetzeko proposamenak egitea eta egindako negoziazioen berri izatea aldioro. Hitzarmen edo programa-kontratu horietan adierazita egonen dira, gutxienez,

helburuak, finantzabideak, ebaluazio sistema eta helburuen betetze-maila.

d) Gobernu Kontseiluak proposaturik, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren urteko aurrekontua eta haren aldaketak onestea. Aurrekontuari eta hura betetzeko arauari erantsiko zaie Nafarroako Gobernuaren unibertsitatearen arloko eskumena duen departamentuak eginiko aldeko txostena, aurrekontuko langileriaren kostuari buruzkoa, eta lortu nahi diren helburuak eta haien kostua biltzen dituen memoria bat.

e) Gobernu Kontseiluak proposaturik, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Plan Estrategikoaren finantzabidea onestea.

f) Nafarroako Unibertsitate Publikoaren urteko kontuak onestea, bai eta urteko memoria ekonomikoa, programaturako helburuen betetze-maila eta aurrekontuko kostuak izandako desbideratzeak azalduta.

g) Kasuan kasuko organoak onetsi aurretik, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren menpeko entitateen urteko aurrekontua baimentzea, bai eta haien kapitalean nahiz ondare-funts baliokidean partaidetza handiena Nafarroako Unibertsitate Publikoarena den entitateena ere, merkataritzako legeria edo, haien araubide juridikoa dela-eta, entitate horiek men egin behar dioten beste bat deusetan ukatu gabe.

h) Artikulu honen aurreko letran aipaturako entitateen urteko kontuak onestea.

i) Gobernu Kontseiluak proposaturik, Unibertsitateko irakasle eta ikertzaileentzat oro har ezarritakoen gehigarri diren lansari kontzeptuen banakako atxikipena erabakitzea, aplikatzekoak diren arauen eta xede horrekin Nafarroako Gobernuak onetsiko dituen mugen barruan, eta Nafarroako Foru Komunitateko legeak ezartzen duen kanpoko ebaluazio organoak merezimenduak baloratu ondoan.

j) Irakaskuntza berekien eta titulu ofizialak lortzeko bideratuak ez diren ikasketen prezioak eta salbuespenak finkatzea, bai eta Unibertsitateak ematen dituen irakaskuntzaz kanpoko zerbitzuenak eta unibertsitateko instalazioak erabili edo lagatzekoak ere.

k) Nafarroako Unibertsitate Publikoak bere baliabide arruntan kontura ikasketetarako ematen dituen beka, laguntza, salbuespen eta ikasketetarako kredituen politikaren jarraibideak ezartzea, publizitate, merezimendu eta gaitasunaren printzipioei jarraikiz.

l) Nafarroako Gobernuaren organo eskudunei proposatzea, onetsi dituzten, Nafarroako Unibertsita-

te Publikoaren, haren menpeko entitateen zein haien kapitalean nahiz ondare-funts baliokidean partaidetza handiena Nafarroako Unibertsitate Publikoarena den entitateen zorpetze jarduketak guztiak.

m) Gobernu Kontseiluak proposaturik, kreditu berezia edo kreditu gehikuntzak ematea onestea, baldin eta hurrengo ekitaldira geroratu ezin den gastu bat egin beharra badago eta horretarako krediturik ez badago aurrekontuetan, eta dagoen kreditua nahikoa ez bada.

n) Kapitaleko gastuak Nafarroako Unibertsitate Publikoaren gastuen aurrekontuko beste kapitulu batera transferitzeko baimena ematea.

ñ) Unibertsitateko organo eskudunak proposaturik, baimena ematea Nafarroako Unibertsitate Publikoari ondoko hauetarako: ondasun higiezinak erosteko, erakundearen ondare-ondasun higiezinak eta aparteko balioa duten ondasun higigarriak eta bere helburuak lortzeari lotzen zaizkion gainerrakoa besterendu edo erabiltzeko eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren jabari publikoko ondasunak desfektatzeko, baldin eta haien balioa Gizarte Kontseiluak ezartzen dituen mugetatik gorakoa bada. Horretarako, Gizarte Kontseiluak, urte natural bakoitzeko lehenbiziko hiruhilekoan, entitatearen ondarea osatzen duten ondasunen inbentarioa jasoko du, aurreko ekitaldiko abenduaren 31n eguneratua

o) Estatuko edo Foru Komunitateko legeria indardunak bere esku utzitako beste edozein.

**6. artikulua.** Zerbitzuen errendimendua eta kalitatea gainbegiratzeko eskumenak.

Hauek dira zerbitzuen errendimendua eta kalitatea gainbegiratzeko eskumenak:

a) Nafarroako Unibertsitate Publikoaren errendimendua eta kalitatea gainbegiratzea, bere esparru guztietan, eta hobekuntza lerroak proposatzea.

b) Nafarroako Unibertsitate Publikoaren kalitate plana prestatzeko lanetan parte hartzea eta proposamenak egitea zerbitzuen kalitatea eta eraginkortasuna hobetzeko.

c) Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasleen eta ikertzaileen lanaren barne nahiz kanpoko ebaluazioen emaitzak ezagutzea eta hobetzeko neurriak proposatzea.

d) Estatuko edo Foru Komunitateko legeria indardunak bere esku utzitako beste edozein.

e) Nafarroako Unibertsitate Publikoaren kontuak Nafarroako Comptos Ganberak auditatzen ez

dituen urteetan, Gizarte Kontseiluak kanpoko finantza auditoria bat eskatu ahal izanen du.

**7. artikulua.** Plangintza eta garapen instituzionalaren eskumenak.

Hauek dira plangintza eta garapen instituzionalaren arloko eskumenak:

a) Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Plan Estrategikoaren proiektuaren prestaketa lanetan parte hartzea eta Gobernu Kontseiluarekin adostea.

b) Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektorearekin gerentearen izendapena adostea.

c) Ingurune sozialaren behar akademikoei erantzuten dieten titulu ofizialak lortzera bideratutako irakaskuntza berriak ezartzeari buruzko txostena egitea.

d) Unibertsitateen Kontseiluak aurretik txostena emanik, Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikasleak mailaz igo eta bertan irauteko arauak onestea, ikasketa mota bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartuz betiere.

e) Txostenak egitea eskolak eta fakultateak sortu, aldatu eta kentzeko proposamenei eta unibertsitateko titulu ofizialak, Espainia osoan balio dutenak, lortzera bideratutako ikasketak ezarri eta kentzeko proposamenei buruz, Unibertsitateei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren 8. artikularekin bat.

f) Txostenak egitea unibertsitateko ikerketa-institutuak, ikerketa erakundeak edo zentroak, publikoak nahiz pribatuak, Nafarroako Unibertsitate Publikoari atxikitzeko edo atxikipena kentzeko proposamenei buruz, Unibertsitateei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren 10. artikularekin bat.

g) Txostenak egitea ikastetxe publikoak edo pribatuak Nafarroako Unibertsitate Publikoari atxikitzeko proposamenei buruz, titulu ofizialak, Espainia osoan balio dutenak, lortzera bideratutako ikasketak ezartzeko, Unibertsitateei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren 11. artikularekin bat.

h) Nafarroako Unibertsitate Publikoak, bakarrik edo beste entitate batzuekin batera, edozein mota-tako pertsona juridikoak sortu, aldatu edo desgertzea onestea, eta beste entitate batzuetan parte hartzea ere onestea.

i) Estatuko edo Foru Komunitateko legeria indardunak bere esku utzitako beste edozein.

**8. artikulua.** Unibertsitatearen eta gizartearen arteko harremanak sustatzeko eskumenak.

Hauek dira gizartearekiko harremanak sustatzeko eskumenak:

a) Urteko jarduketa plan bat onestea, unibertsitatearen eta bere ingurune kultural, profesional, ekonomiko eta sozialaren arteko harremanak sustatzeko xedearekin, eta gizarteari ezagutaraztea Nafarroako Parlamentuaren bitartez.

b) Eragile ekonomiko eta sozialen partaidetza sustatzea Nafarroako Unibertsitate Publikoaren irakaskuntzen eta ikerketaren finantzaketan.

c) Unibertsitateko tituludunen lan egoerari eta irakaskuntza berrien eskaera sozialari buruzko azterlanak sustatzea.

d) Nafarroako Unibertsitate Publikoak hitzarmenak egin ditzan sustatzea, xedea ikasleen prestakuntza osatu eta, enpresetan edo bestelako entitate sozialetan lanbide praktikak eginez, unibertsitateko tituludunei laneratzen laguntzea duten entitate publiko eta pribatuekin.

e) Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakaskuntza, ikerketa eta hedapen lana bultzatzea, bereziki produkzioaren sektoreekiko loturari dagokionez, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren, enpresen eta ehun sozialaren arteko ikerketa eta garapen proiektu bateratuen alde eginez, eta unibertsitateko ikerketetan lortutako emaitzen transferentzia eta hedapen politikak ere lagunduz, gizartearen behar eta eskaerei erantzuteko.

f) Sektore profesionalen, sozialen eta ekonomikoaren partaidetza sustatzea, titulu ofizialak eskuratzera bideratutako irakaskuntzak gizartearen behar eta eskaeretara egokitze aldera.

g) Nafarroako Unibertsitate Publikoaren ikasketak arduradunekin batera, etengabeko prestakuntzako eskaintza bat sustatzea, jardunean ari diren profesionalen zuzendua eta haien premietara egokitua.

h) Unibertsitatearen arloko politikaren garrantziko alderdiei buruzko hausnarketa eta debatea sustatzea, unibertsitateko komunitateak eta ingurune sozialak horietan parte har dezaten lortzeko.

i) Nafarroako Unibertsitate Publikoaren eta haren ikasle ohien artean harremanak ezar daitezela sustatzea, loturei eusteko eta unibertsitateko erakundearen aldeko mezenasgo ekintzak bultzatzeko.

j) Gizarte Kontseiluko buruak proposaturik, unibertsitateetako gizarte kontseiluen elkarteetan parte-hartzea onestea.

k) Pertsona nahiz erakundeendako laguntzak, sariak, goresmen edo aintzatespenak proposatzea.

Letra berria. Nafarroako kultur eta gizarte aurrerapena bultzatzeko lankidetzan aritzea.

l) Estatuko edo Foru Komunitateko legeria indardunak bere esku utzitako beste edozein.

### III. KAPITULUA Antolaketa

#### 9. artikulua. Osaera.

1. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluak hemeretzi kide izanen ditu.

2. Sei kidek unibertsitateko komunitatea ordezkatuko dute, honela banatuak:

a) Berezko hiru kontseilukide: errektorea, idazkari nagusia eta gerentea.

b) Gobernu Kontseiluak bere kideen artean hautatutako hiru kide, unibertsitateko komunitatea ordezkatzuz: irakasle bat, ikasle bat eta administrazioko eta zerbitzuetako langileen ordezkari bat.

3. Hamahiru kidek Nafarroako interes sozialak ordezkatuko dituzte, honela banatuak:

a) Bost kide Nafarroako Parlamentuak gehien-oso hautatuak.

b) Bi kide, izendapenaren aurretik Nafarroako Foru Komunitatean egindako azken hauteskunde sindikalen emaitza ofizialen arabera ordezkari gehien lortu dituzten bi sindikatuak bana proposaturik.

c) Bi kide, araudi indardunaren arabera, Nafarroako Foru Komunitatean enpresaburuaren elkarte garrantzitsuenek proposaturik.

d) Lau kide, Hezkuntza Departamentuko titularrak proposaturik.

#### 10. artikulua. Izendapena.

Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluko kideen izendapenak eta kargu-uzteak Nafarroako Gobernuaren foru dekretu baten bidez eginen dira, unibertsitatearen eskumena duen kontseilariak proposaturik eta foru lege honen 9. artikuluan aipatutako entitate edo erakundeek aukeratu ondoren.

#### 11. artikulua. Eginkizunak.

1. Gizarte Kontseiluko kideek, beren eginkizunak betetzeko, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren interes orokorrak hartuko dituzte kontuan, eta foru lege honetako 3. artikuluan aipatzen diren helburuak bete daitezen begiratuko dute.

2. Kontseiluko kideak ez dira aginduz lotuta egonen, eta karguak pertsonalki beteko dituzte. Halere, kargua eskuordetu ahalko diote, idatziz eta bilera jakin baterako, Gizarte Kontseiluko beste kide bati; eskuordetzea orokorra izan daiteke edo eguneko gai zerrendako puntu bakoitzeko botoa adierazita. Antolaketaren eta Funtzionamenduaren Erregelamenduak ezarriko ditu eskuordetzerako baldintzak eta gehieneko kopurua.

3. Gizarte Kontseiluko kideek, Kontseiluko buruaren bitartez, bere eginkizunak betetzeko beharrezkotzat jotzen duten informazioa eta laguntza eskatu ahal dizkiete Nafarroako Unibertsitate Publikoko organoei.

#### **12. artikulua.** Agintaldia.

1. Gizarte Kontseiluko kideak lau urterako izendatu ahal izanen dira, eta jarraian beste behin baidik ez dira hautatu ahal. Arau horretatik kanpo daude berezko kideak.

2. Gizarte Kontseiluko kideek egoera hauetan utziko dute kargua:

- a) Agintaldia amaitzean.
- b) Ukoagatik edo heriotzagatik.
- c) Karguari dagozkion eginbeharrak ez bete-zeagatik, artikuluko honen zazpigarren idatz-zatian aurreikusitakoaren arabera.
- d) Bateriaezintasunagatik, foru lege honen 14. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.
- e) Ordezkaritza bertan behera uzteagatik.
- f) Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluko kidea izateko behar den izaera edo kargua galtzeagatik.

3. Agintaldia amaituta, Gizarte Kontseiluan interes sozialak ordezkatzeko aukeratutako kideek jardunearan jarraituko dute kide berriek jabetza hartu arte.

4. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Estatutuek arautuko dute Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gobernu Kontseiluak Gizarte Kontseilurako izendatutako kideak hautatu eta ordezkatzeko prozedura.

5. Gizarte Kontseiluko berezko kideek kide izaera eragiten duen izaera galtzen dutenean utziko dute kargua.

6. Agintaldia bukatu baino lehen Gizarte Kontseiluko kideren baten tokia hutsik geldituz gero, foru lege honen 9. artikuluan ezarritako prozeduraren bidez beteko da, hiru hilabeteko epean gehienez, eta foru lege honen 9. eta 10. artikuluekin bat.

Kide berria aurreko titularrak bete gabe daukan agintaldirako izendatuko da.

7. Gizarte Kontseiluak prozedura bat ezarriko du bere Antolaketaren eta Funtzionamenduaren Erregelamenduan, kideren batek bere eginbeharrak betetzen ez dituztenean izendatu zuen organoari hura ordezteko proposamen arrazoitua egiteko.

#### **13. artikulua.** Eginbeharrak.

Gizarte Kontseiluko kideek eginbehar hauek dituzte:

- a) Osoko Bilkuretara eta, zer batzordetako kide diren, horien bilkuretara ere joatea.
- b) Karguak direla-eta beren esku utzitako zeregin guztiak betetzea.
- c) Barneko eztabaiden gaineko isilpekotasuna eta konfidentzialtasuna gordetzea, bai eta espresuki isilpekotzat jotzen diren gai eta jarduketan ere.
- d) Bateriaezintasunari buruzko arauak bete-zeza, foru lege honekin bat haiengan eragina izan dezaketena, eta Gizarte Kontseiluko buruari jakinaraztea bateraezintasuna ekar dezakeen inguruabar oro, bai hasieratik izandakoak bai ondoren gertatutakoak.
- e) Antolaketaren eta Funtzionamenduaren Erregelamenduan ezartzen diren beste guztiak.

#### **14. artikulua.** Bateriaezintasunak.

1. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluko kideek ezin dute Unibertsitatearekin lanak, zerbitzuak edo hornidurak kontratatzen dituzten enpresa edo sozietateetako zuzendaritza kargurik bete, ez berez ez tarteko pertsona baten bidez. Bestalde, ezin dute enpresa edo sozietate horien kapitalean 100eko 10 baino gehiagoko partaidetzarik izan. Bateriaezintasun horrek ez die eragiten Unibertsitatei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren 83. artikuluko 1. eta 2. idatz-zatiekin bat izenpetutako kontratuei.

2. Gizarte Kontseiluan interes sozialak ordezkatzen dituzten kideak ezin dira unibertsitateko komunitateko kideak izan.

### **IV. KAPITULUA** **Funtzionamendua**

#### **15. artikulua.** Egitura organikoa.

Hau da Gizarte Kontseiluaren egitura:

- a) Osoko Bilkura, Batzorde Iraunkorra, eta Antolaketaren eta Funtzionamenduaren Erregelamenduak ezartzen dituen batzordeak edo Osoko Bilkuraren erabakiz eraturakoak.

b) Kontseiluko burua, idazkaria eta buruordeak, Gizarte Kontseiluko Antolaketaren eta Funtzionamenduaren Erregelamenduak xedatzen duenarekin bat.

**16. artikulua.** Osoko Bilkura.

Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluaren Osoko Bilkura kontseiluko buruak eta kideek osatzen dute, eta haren eginkizuna da foru lege honen 4. artikuluan aipatutako eskumenei buruzko erabakiak hartzea, deusetan ukatu gabe Gizarte Kontseiluaren gainerako organoei erregelamendu bidez esleitzen zaizkien eginkizunak.

**17. artikulua.** Batzorde Iraunkorra.

1. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluak batzorde iraunkor bat izanen du, Antolaketaren eta Funtzionamenduaren Erregelamenduan ezarritakoari jarraikiz izendatua.

2. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren zeregina da Osoko Bilkuraren eginkizunak bere gain hartzea osoko bilkuren arteko aldian, Antolaketaren eta Funtzionamenduaren Erregelamenduan ezartzen diren arauekin bat.

**18. artikulua.** Batzordeak.

1. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluak Osoko Bilkuraren eta batzordeen bidez beteko ditu bere eginkizunak. Batzordeen eginkizunak izanen dira beren gain utzitako gaiei buruzko erabakiak aztertu, eztabaidatu eta Osoko Bilkurari proposatzea eta, hala behar denean, erabakiak hartzea Osoko Bilkurak eskuordetuta.

2. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluak ikasketa batzorde bat, ekonomia eta finantza batzorde bat eta gizartearekiko harremanetarako batzorde bat izanen ditu, gutxienez.

a) Ikasketa Batzordeak Nafarroako Unibertsitate Publikoaren jarduera zientifiko eta akademikoaren inguruko gaiei buruzko erabakiak aztertu, eztabaidatu eta proposatuko dizkio Osoko Bilkurari.

b) Ekonomia eta Finantza Batzordeak Unibertsitatearen afera ekonomikoen eta finantzabideen arloko gaiei buruzko erabakiak aztertu, eztabaidatu eta proposatuko dizkio Osoko Bilkurari.

c) Gizartearekiko Harremanetarako Batzordeak ingurune sozialarekiko harremanei dagozkien gaiei buruzko erabakiak aztertu, eztabaidatu eta proposatuko dizkio Osoko Bilkurari.

**19. artikulua.** Kontseiluko burua.

1. Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Gizarte Kontseiluko burua Nafarroako Gobernuak izendatuko du interes sozialak ordezkatzeko dituzten kideen artean, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Gizarte Kontseiluko kideen gehiengoak proposaturik.

2. Kontseiluko buruaren agintaldia lau urtekoa izanen da, eta beste agintaldi bakar baterako aukeratu ahal izanen da.

3. Kontseiluko burua Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Gizarte Kontseiluaren ordezkari gorenaren izanen da.

4. Kontseiluko buruaren eskumena da Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Gizarte Kontseiluaren bilkuretarako dei egin eta bertan buru gisa aritzea, erabakiak eta legeria indarduna betetzen direla begiratzea, eta Antolaketaren eta Funtzionamendu Erregelamenduak ematen dizkion gainerako eginkizun guztiak.

**20. artikulua.** Kontseiluko buruordea.

Gizarte Kontseiluko buruak buruorde bat edo bi izendatu ahal ditu, lehentasunezko ordenan, Gizarte Kontseiluan interes sozialak ordezkatzeko dituzten kideen artean. Kontseiluko buruordea buruaren ordezkari izango da, kargua hutsik dagoenean, betetzen duena hiltzen bada, bertan ez bada go edo uko egiten badio karguari.

**21. artikulua.** Idazkaria.

1. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluko lehendakariak izendatuko du idazkari bat. Izendatua Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluko kidea ez den bat izan ahal da, eta kasu horretan hizpidearekin bai baina botorik gabe ariko da bilkuretan. Idazkariak ez du ikasketak nahiz ikerketak arloko eginkizunik izanen Unibertsitatean.

2. Idazkariak ondoko eginkizun hauek izanen ditu: kontseiluko buruari laguntza ematea Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluaren aferetan, kide anitzeko organoen idazkaritzako eginkizunak betetzea, eta Antolaketaren eta Funtzionamenduaren Erregelamenduak esleitzen dizkion gainerakoak.

**22. artikulua.** Lansariak eta kalte-ordainak.

1. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluko buruak eta idazkariak Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluak finkatzen dituen ordainsariak jasoko dituzte, kargu horietarako ezarritako dedikazio mailaren arabera.



2. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluko gainerako kideek, beren eginkizunetan aritzeagatik, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluak dieta eta joan-etorrietarako ezartzen dituen kalte-ordainak kobratuko dituzte.

**23. artikulua.** Antolaketaren eta Funtzionamenduaren Erregelamendua.

1. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluak bere Antolaketaren eta Funtzionamenduaren Erregelamendua egin eta Nafarroako Gobernuari igorriko dio, onets dezan.

2. Erregelamendu horretan Osoko Bilkuraren bilera ohikoak egiteko maiztasuna finkatuko da, bai eta deialdiak egin, bilerak eratu eta erabakiak hartzeko baldintzak ere.

3. Foru Lege honen 5., 6., 7. eta 8. artikuluetan ezartzen diren onespenez egiteko erabakiak hartzeko erabateko gehiengoa beharko da, ezertan ukatu gabe Antolaketaren eta Funtzionamenduaren Erregelamenduan horri buruz aurreikusten dena.

**24. artikulua.** Erabakiak betearazi eta argitaratzea.

1. Unibertsitateko errektoreari dagokio Gizarte Kontseiluak hartutako erabakiak betearaztea. Horretarako, hartutako erabakien egiaztagiria igorriko du idazkariak Errektoregora.

2. Errektoreak aginduko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman daitezkeen araudi indardunaren arabera publizitatea behar duten erabakiak, bai eta beste batzuk ere, Gizarte Kontseiluaren beraren iritziz argitaratzea komeni denean.

**25. artikulua.** Araubide juridiko-administrati-boa.

Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluaren Osoko Bilkuraren erabakiek eta, Osoko Bilkurak eskuordeturik, batzordeek hartutakoek amaiera ematen diote bide administrati-boa, eta zuzenean administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurkatu behar dira, ezertan ukatu gabe aurretiko administrazio errekursoak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak ezarri bezala.

**26. artikulua.** Aurrekontua eta langileak.

1. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluak bere aurrekontuaren proiektua eginen du; gero, Unibertsitatearen aurrekontuan sartuko

da, Nafarroako Gobernuaren eta Unibertsitatearen arteko finantzaketa hitzarmenean ezarritakoaren barruan.

2. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluak foru lege honek esleitzen dizkion eginkizunak betetzeko behar diren langileak izanen ditu; horretarako, antolaketa autonomoa izanen du eta beharko duen langile kopurua proposatuko du. Halere, Gizarte Kontseilua ahaleginduko da Nafarroako Unibertsitate Publikoak dituen langileez baliatzen.

**Xedapen iragankor bakarra.** Behin-behineko araubidea.

1. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseilua foru lege honek indarra hartu eta hiru hilabeteko epean, gehienez, eratu da.

2. Foru lege honek indarra hartu baino lehen eraturako Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluak jardunean jarraituko du eta arau honek ematen dizkion eskumenak beteko ditu, kontseilu berria eratu arte.

**Xedapen indargabetzaile bakarra.** Arauak indargabetzea

Indarrik gabe geldituko da Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluari buruzko abenduaren 9ko 20/1994 Foru Legea, bai eta foru lege honetan xedatutakoaren kontrakoak diren maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

**Azken xedapenetan lehenbizikoa.** Antolaketaren eta Funtzionamenduaren Erregelamendua.

Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluak bere Antolaketaren eta Funtzionamenduaren Erregelamendua eginen du eratu eta hiru hilabetera, gehienez ere. Erregelamenduak Nafarroako Gobernuaren onspena beharko du eta indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren.

**Azken xedapenetan bigarrena.** Arau garapena.

Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio foru lege hau betearazi eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

**Azken xedapenetan hirugarrena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

## Nafarroako 2006ko kontu orokorreari buruzko Foru Lege proiektua.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko ekainaren 17an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza birrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 18. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Gobernuak, 2007ko irailaren 10ean hartutako erabakiaren bidez, Nafarroako 2005eko kontu orokorreari buruzko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura. Hari buruz, Comptos Ganberak txosten bat eman zuen, 2008ko ekainaren 19ko 57. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zena.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 156. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarra entzun ondoren, hona

### ERABAKIA:

1. Nafarroako 2006ko kontu orokorreari buruzko Foru Lege proiektua Osoko Bilkuran irakurketa bakarreko jardunbidez bideratzea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2008ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## Nafarroako 2006ko kontu orokorreari buruzko Foru Lege proiektua

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 18. artikuluan xedatutakoari jarraituz, Diputazioari dagokio aurrekontu orokorrak prestatu eta kontuak formalizatzea Parlamentuan aurkezteko, bertan eztabaidatu, zuzendu eta, hala erabakiz gero, onets daitezzen. Hori guztia, foru legeetan ezarritakoari jarraituz.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legearen 110. artikulua Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren esku uzten du Nafarroako kontu orokorren formulazioa. Horiek, behin Nafarroako Gobernuak onetsitakotan, Nafarroako Parlamentura behar dira igorri dagokion foru lege proiektuaren bidez, 8/1988 Foru Legearen 115. artikuluan aurrekusi bezala.

Nafarroako Gobernuak eginak ditu 2006ko ekitaldiko kontu orokorreari buruz adierazitako tramiteak, Comptos Ganberak emana du behar den irizpena eta tramitatua dago Nafarroako 2006ko kontu orokorreari buruzko Foru Lege proiektua, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 154. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz. Bidezko da, beraz, foru lege hori onestea.

**Artikulu bakarra.** Onetsi egin dira Nafarroako 2006ko kontu orokorrak, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak formulatu eta Nafarroako Gobernuak onetsiak, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko 8/1988 Foru Legearen 113., 114. eta 115. artikuluetan ezarritakoaren arabera. Ondoko agiri eta euskarrietan ageri da haien edukia:

– Paperezko argitalpen batean, non kontuak osatzen dituzten argibideen atalik nabarmenenen edukia eta laburpena azaltzen baitira: kontuak osatzen dituzten erakundeen aurrekontuetako likidazioak eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen kontuen alderdirik nabarmenenak. Sozietate publikoen kontuen laburpena ere ageri da.

– Euskarri digital batean, non entitate eta sozietate publikoen kontuak luze eta zabal azaltzen baitira, haien auditoretza-txostenekin batera. Aurrekontuetako programen oroit-idazkiak ere sartzen dira euskarri horretan.



**E saila:**

**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da atxiki dakion Osasun eta Kontsumo ministroak autonomia erkidegoei eskainitako osasunaren aldeko itunari.**

### *SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita atxiki dakion Osasun eta Kontsumo ministroak autonomia erkidegoei eskainitako osasunaren aldeko itunari.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **MOZIOAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Legebiltzarreko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da atxiki dakion Osasun eta Kontsumo ministroak autonomia erkidegoei eskainitako osasunaren aldeko itunari.

Zioen azalpena

Osasun eta Kontsumo ministroak, Diputatuen Kongresuko Osasun eta Kontsumo Batzordean ekainaren 2an eginiko agerraldian, osasunaren aldeko ituna eskaini zien autonomia erkidegoei, ministerioaren nahitaezko mintzakide baitira Osasun Sistema Nazionala kudeatzeko; itunak Espainiako osasun sistemako funtsezko arloak jasotzen

ditu, ondokoak bermatze aldera: ekitatea, kalitatea, berrikuntza, kohesioa eta iraunkortasuna.

Akordio handi horrek zenbait elkargune jasotzen ditu. Hona:

– Giza baliabideei buruzko politika komuna egitea, beharizanak, plangintza eta lanbide-garapena definitzeko.

– Zerbitzuen zorro komuna handitzea.

– Osasun Sistema Nazionalako erreferentziazko unitateen eta zerbitzuen izendapena sustatzea.

– Osasun arloko gastua arrazionalizatzekeo estrategiak abian jartzea.

– Txertoen egutegi komuna ezartzeko prozedura adostua definitzea.

– Itxaron beharreko gehienezko denbora bermatzeko sistema ezartzea.

– Gure osasun-zerbitzuetan berrikuntza- eta kalitate-politiken aldeko apustua egitea.

– Garatu beharreko politiken alorreko akordio handi bat, prebentzioaren bidez irabazteko drogen kontsumoaren aurkako borroka.

Hona Espainiako Gobernuak autonomia erkidego guztiei eskaini dien osasunaren aldeko itunak jasotzen dituen printzipioak, arestian azaldutako arlo estrategikoen inguruan osasun sistema nazionala indartze aldera eta, hartara, sistemaren etorkizuna bermatze aldera: ekitatea, kalitatea, berrikuntza, kohesioa, segurtasuna eta iraunkortasuna.

Osasun nazionalaren aldeko itun honek segurtasuna eskaintzen die guztiei, batez ere herritarrei; izan ere, osasunaren arloko funtsezko gaiak ez dira ika-mika politikoaren xede izanen; aitzitik, administrazio guztiek indarrak batuko dituzte osasun sistema nazionala kontserbatu eta

hobetzeko eta, hartara, etorkizuneko belaunaldiei ongizatearen estatuaren oinarritzko zutabe hori bermatzeko.

Horregatik, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak honako mozio hau aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du atxiki dakion Osasun eta Kontsumo ministroak autonomia erkidegoei eskainitako osasunaren aldeko itunari.

Iruñean, 2008ko ekainaren 6an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kanabisaren erabilera terapeutikoa baimentzeko eman beharreko urratsak eman ditzan.**

### *IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita kanabisaren erabilera terapeutikoa baimentzeko eman beharreko urratsak eman ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **MOZIOAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du:

Zioen azalpena

Argi dago substantzia psicotropikoen kontsumoa erreprimitzeko politikak porrot egin duela, kanabisaren kontsumoa goraka doalako etengabe. Politika horren ondorioek kalte larriak eragin dizkionte gizarteari: ekonomia mafioso sortzea, delituen kopurua handitzea, kartzelak gainezka egotea eta autoritarismoa eta askatasunen murrizketa justifikatzeko politika.

Helduek (18 urtez goitikoek) substantzia horiek kontsumitzea pertsona horien erantzukizuneko da, ez besterik.

Zuzenbide estatu demokratikoaren oinarrian autonomiarako eskubidea dago, eta horrek esan nahi du nor bere gorputzaren eta osasunaren gaineko kontrola duela.

Osasunaren ikuspegitik frogaturik dago kanabisaren deribatuak erabiltzea onuragarria dela kimioterapiaren eta hies edo anorexiarako tratamenduetan, oinazearen kontrako lasaigarria dela eta garuneko odol-isuriaren prebentzioan ere baliagarria dela.

Baina garai honetan, osasun sisteman paternalismo klinikoaren agerpen zaharrak bazter uzten ari direnean, Estatuaren paternalismo administratiiboaren agerpenak ugaltzen ari dira ordea, droga izeneko debekuaren eta errepresioaren bidez adierazita. Errepresio politikaren burugabekeria agerian uzten duen kasu bat kanabisaren deribatuak kontsumitzeko debekua da. Nafarroan milaka heldu daude substantzia horiek ezkutuan kontsumitu behar dituztenak.

Horregatik, gure ustez, beharrezkoa da eztabaidan jartzea drogen arloko politikak, oro har, eta kanabisaren kontsumoa, ekoizpena eta banaketa legeztatzea aukera, zehazki. Holandako agintariaren ekimenak, adibidez, bide bat jorratu du Europako Batasunean, Nafarroak ere hartu beharko lukeena.

Asmo horrekin proposatzen dugu Nafarroako Parlamentuak honako erabaki proposamen hau onetsi dezan:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar dena egin dezan kanabisaren erabilera terapeutikoa baimentzeko (botika gisa, beste herrialde batzuetan egun erabiltzen den bezala, eta landarearen aterakin estandarizatu gisa).

2. 1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du beharrezkoak diren zuzemenak egin ditzan kanabisaren auto-laborantza despenalizatzeko.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua eta Espainiako Gobernua premiatzen ditu drogaren aurkako kontrol-sistema eragingarriagoak gara ditzan, zirkulazio-kontroltan kanabisa kontrolatzeari dagokionez.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako osasun sareak ikerketak eta entsegu klinikoak egin ditzan substantzia horiekin eta Nafarroako osasun sisteman kanabisaren erabilera sar dezan, beste autonomia erki-dego batzuetan egiten den bezala.

5. Nafarroako Parlamentuak adierazten du administrazioen eta herritarren taldeen artean drogen arloko egungo politikari buruz eta drogen gaineko zigorrak desagertzeari buruz eztabaida egitearen alde dagoela.

6. Nafarroako Parlamentuak adierazten du kanabisaren kontsumoa arautzearen alde dagoela eta, zehazki, Herritarren Segurtasunari buruzko Legearen 25. artikulua kentzearen alde.

7. Zigorak desagertzen ez diren bitartean, Nafarroako Parlamentua jarrera malguten aldekoa izanen da drogen egoera juridikoaren inguruan.

8. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du drogei buruzko informazio guñe bat zabal dezan interneteko espazio egoki baten bidez.

Iruñean, 2008ko ekainaren 10ean

Eleduna: Ion Erro Armendáriz

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lehenbailehen egin ditzan Sarrigurenen aurreikusten diren osasun eta hezkuntza arloko zuzkidurak.**

### *IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita lehenbailehen egin ditzan Sarrigurenen aurreikusten diren osasun eta hezkuntza arloko zuzkidurak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **MOZIOAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Eguesibarko biztanle kopurua asko hazi da, Sarrigurengo etxebizitza garapenari esker.

Une honetan, udal erroldaren arabera, Sarrigurenek 3.736 bizilagun ditu, eta Eguesibarrek 9.347. Bizpahiru urteren buruan bikoiztu egingen bide da biztanle kopuru hori.

Nafarroako Gobernuak, hortaz, beharrezkoak diren inbertsioen plangintza egin beharko zukeen, biztanle berri horien beharrezko aurre egiteko osasun- nahiz hezkuntza-zuzkidurak prest izateko orain bertan eta etorkizun hurbilenean.

Itxura batean hain oinarritzkoa dena, baina, ez da gertatu. Sarrigurenek ez du, gaur egun, ez osa-

sun etxerik (Nafarroako Gobernuak ez dakigu noiz duen osasun etxea eraikitzen hasteko asmoa), ez Otik 3 urtera bitarteko ikastetxerik ere (dagoen bakarra da obrak 2008an hasteko konpromisoa), eta haur eta lehen hezkuntzako ikastetxea, berriz, ezin izanen du erabili 2009/2010 ikasturtera arte.

Egoera horri –alegia, ia 4.000 herritar bizi dira Sarrigurenen, Otik 10 urtera bitarteko 448 haur daude (ibar osoan, Otik 10 urtera bitarteko 1.714 haur) eta bizpahiru urtean bikoiztu egingen dira zenbateko horiek– izen bakarra eman dakiok: Nafarroako Gobernuaren erabateko porrota, plan-gintzari eta aurrez ikusteari dagokienez.

Argi dago ezen aurrez ikusi den hezkuntza-eskaintza publikoa urri geldituko dela.

Haur eta lehen hezkuntzako ikastetxe publikoak 675 bat ikaspostu izanen ditu (225 bat haur hezkuntzan eta 450 bat lehen hezkuntzan), eta hori ez dator bat inondik ere eskola adineko populazioarekin, zeina, Sarrigurenen bakarrik, horren halako bi izanen baita hemendik gutxira.

Nafarroako Gobernuak Sarrigurengo bizilagunekiko erakutsi duen arduragabekeria onartezin horren aurrean, ekimen pribatua azkar mugitu da, prestatzen hasia baitago bere ikastetxeak paratzeko populazio-gune horretan.

Onartezina da gaur egun Sarrigurenen dauden hiru hartzaindegietarik bi pribatuak izatea.

Beste behin ere pairatu behar dugu Nafarroako gobernu bat, hezkuntza eta osasun publikoak, eta,

hartara, milaka nafarren eskubideak, kaltetzen dituen.

Hori dela-eta, foru parlamentarien elkarte honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio lehenbailehen eta lehentasun osoz egin ditzan Sarrigurenen aurreikusten diren osasun eta hezkuntza arloko zuzkidurak.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio Otik 3 urtera bitarteko, haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako ikaspostu publiko gehiago jar ditzan, beharrian errealei erantzuteko, halako moduz non Otik 3 urtera bitarteko zikloan 14 gela egonen diren aurreikusita, dauden 8 gelen ordeztan, eta haur eta lehen hezkuntzan, 5, eta ez aurreikusita dauden 3ak.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio ikaspostuek euskarazko nahiz gaztelaniazko eskariari erantzun diezaioten, bai eta gerta litezkeen hezkuntza premia berezietan ere.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio 2008tik 2012ra bitarteko inbertsioen eta obren plan zuzendarian lehentasuna eman diezaien Eguesko (Sarriguren) herriaren beharriari, eta, halatan, 2011rako aurreikusitako diren obrak 2008an has daitezkeen.

Iruñean, 2008ko ekainaren 10ean

Eleduna: Ion Erro Armendáriz

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du 48 orduko lan-astea aldatzearen aurka dagoela eta Europako Parlamentua premiatzen du aldaketa hori bazter utz dezan.**

### **IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu 48 orduko lan-astea aldatzearen aurka dagoela eta Europako Parlamentua premiatzen du aldaketa hori bazter utz dezan.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **MOZIOAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Europar Batasuneko lan ministroek lehendakaritza esloveniarraren proposamen bat onetsi dute, zeinak bide emanen baitio estatu kide bakoitzari bere legedia aldatzeko, indarrean dagoen 48 orduko lan-astea 60 ordura igotze aldera oro har, eta 65era talde jakin batzuentzat, sendagileak kasu.

48 orduko gehienezko lan-astea gizarte-eskubide bat da, Lanaren Nazioarteko Erakundeak orain dela 91 urte ezarria.

Gaur, Europako zuzentarau hori, muturreko liberalismo ekonomikoak sustatua eta Britainia Handia eta Alemania aitzindari dituen, lan arloko ia ehun urteko lorpena zapuzteko mehatxu bat da.

Gauza jakina da enpresa transnazionalak eta Europako gobernu asko tematuta daudela Europako gizarte eredu jadanik mugatu eta debalatuatua amaitzen.

Amaiera horrek, baina, ondorio oso negatiboak izanen ditu, inondik ere, Europar Batasunaren

gizarte- nahiz erakunde-egonkortasunerako.

Laneko denborari buruzko zuzentarauak –onesirik dago, eta Europako Parlamentuan bozketa egitea gelditzen da– lanaldia asteko 48 orduetatik oso goiti handitzeko bidea ematen du, eta horretarako nahiko da enpresaburua eta langilea ados jarzea.

Estatu kideek beren legedia aldatu eta langileen esku utzi ahalko dute lanaldiaren iraupenari buruzko banakako hitzarmenak egitea enpresaburuekin, asteko 60 ordura bitarte oro har eta 65 ordura bitarte kasu berezietan, sendagileenean kasu. Lanaldi hori hiru hilabeteko batez besteko gisa zenbatzen denez, lanaldiak 78 ordura bitartekoak izan ahalko dira.

Onetsitakoak eraso egiten dio negoziazio kolektiborako konstituzio-eskubideari, eta langileak bere eskubideei uko egiteko aukera irekitzen du.

Onetsitakoaren ondorio negatiboan artean nabarmentzekoa da orobat ez dela laneko denborat hartzen langilea erabilgarri baina lanik gabe dagoen denbora.

Hori Europako Justiziako Gortearen jurisprudentziaren aurka doa, eta osasun arloko langileak izanen dira kaltetuenak.

Hori dela-eta, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak ondoko erabaki-proposamena aurkeztu du:

**1.** Nafarroako Parlamentuak adierazten du zeharo gaitzesten duela indarrean dagoen 48 orduko lan-astea 60 ordura igotzea, eta gizarte-lorpen historiko hori mantentzea eskatzen du.

**2.** Nafarroako Parlamentuak Europako Parlamentua premiatzen du arbuia dezan zuzentarau hori, zeinak bide ematen baitio estatu kide bakoitzari bere legedia aldatzeko, indarrean dagoen 48 orduko lan-astea handitze aldera.

**3.** Erabaki hau ondokoei igorriko zaie:

a) Europako Batzordeari.

b) Europar Batasuneko 27 estatu kideetako gobernuari.

c) Europako Parlamentuari.

Iruñean, 2008ko ekainaren 10ean

Eleduna: Ion Erro Armendáriz



## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da malgutasun-irudiak ezar eta zabal ditzan Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren barruan.**

### *SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita malgutasun-irudiak ezar eta zabal ditzan Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren barruan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **MOZIOAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Legebiltzarreko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da malgutasun-figurak ezar eta zabal ditzan Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren barruan.

Zioak

Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak XXI. mendeko administrazioantze jo behar du eta, hortaz, modernizazio-neurriak hartu behar ditu, egiaz izan dadin herritarren administrazioa, Europan arlo horretan diren irizpideei jarraikiz.

Halatan, helburua da zerbitzu publikoei bultzada bat ematea, antolakuntza malguago eta eragin-garriago baten bidez, administrazio elektronikoa ezarri eta zabalduz. Beharrezkoa da lana eta familia bateragarri egiteko neurriak aplikatzea enplegatu publiko guztientzat, halako moduz non erreferente eta eredu izanzen baita beste erakunde publiko eta pribatu batzuentzat. Arlo horiek guztiek garrantzia eta pisua izan behar dute funtzio publiko ordezkariak sindikalarentzat eta parlamentu-taldeentzat.

Hori guztia dela-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du, Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren enplegatu publikoen erakunde sindikalekin ados jarrita, lan-malgutasuneko figurak ezar eta zabal ditzan, esaterako lanaldi partziala, lanaldi trabagabea, laneko denboraren kapitalizazioa, lanpostua partekatzeko aukera eta telelana, hau da, "geometria aldakorreko" lan-formula berriak.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du "Bateratu foru plana" presta eta onetsi dezan Nafarroako Foru Komunitateko administrazioan eta gizarte-elkarrizketa hobetu dezan administrazio horren eremuan, administrazioak enpresa den aldetik erkidegoarentzat duen garrantzia kontuan harturik.

Iruñean, 2008ko ekainaren 12an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, “Motor eta bizikletentzako segurtasun hesiak egokitzea” izeneko kontusailaren betetze-mailari eta aplikazioari buruzkoa.***JOSÉ M.ª VÁZQUEZ ROYO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea José M.ª Vázquez Royo jaunak aurkeztutako galdera, “Motor eta bizikletentzako segurtasun hesiak egokitzea” izeneko kontusailaren betetze-mailari eta aplikazioari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2008ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari José María Vázquez Royok, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Herri Lan, Garraio eta

Komunikazio kontseilariak kasuko batzordean ahoz erantzun dezan:

Zioen azalpena

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko zuzenketa aurkeztu zion 2008ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorren proiektuari: “Motor eta bizikletentzako segurtasun hesiak egokitzea.” Zuzenketa onetsi zenez gero, azken irizpenean jasota geratu zen.

Nafarroako Gobernuak eta Asociación Mutua Motera izenekoak sinatutako hitzarmenaren betetzea hiru urte aurreratzea dakar PSN-PSOEn zuzenketak –300.000 euro–. Hori kontuan hartuta eta ekitaldi honetako seihilekoa laster bukatuko denez, ondoko ahozko galdera aurkezten dut:

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak zer asmo du, motorzaleen elkarteek Gobernuari azaldutako planteamenduekin bat, errepideetako segurtasun hesiak egokitzen jarraitze aldera?

Iruñean, 2008ko ekainaren 6an

Foru parlamentaria: José María Vázquez Royo

## **Galdera, “Medinaceli-Soria-Tutera autobia (Nafarroako tartea)” izeneko kontusailaren betetze-mailari eta aplikazioari buruzkoa.**

*JOSÉ M.ª VÁZQUEZ ROYO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José M.ª Vázquez Royo jaunak aurkeztutako galdera, “Medinaceli-Soria-Tutera autobia (Nafarroako tartea)” izeneko kontusailaren betetze-mailari eta aplikazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2008ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari José María Vázquez

quez Royok, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak kasuko batzordean ahoz erantzun dezan:

Zioen azalpena

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko zuzenketa aurkeztu zion 2008ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorren proiektuari: “Medinaceli-Soria-Tutera autobia (Nafarroako tartea)”. Zuzenketa onetsi zenez gero, azken irizpenean jasota geratu zen.

Ekitaldi honetako lehen seihilekoa laster bukatuko baita, ondokoa jakin nahi dut:

Zer harreman eta, baldin eta halakorik izan bada, zer aurrerapauso eman dira jakite aldera zein konexio-puntutan emanen zaion jarraipena autobia horri Nafarroan?

Iruñean, 2008ko ekainaren 6an

Foru parlamentaria: Jose María Vázquez Royo

## **Galdera, “Udal jabetzapeko ikastetxeetako obrak” izeneko kontusailaren betetze-mailari eta aplikazioari buruzkoa.**

*MARÍA VICTORIA ARRAIZA ZORZANO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Victoria Arraiza Zorzano andreak aurkeztutako galdera, “Udal jabetzapeko ikastetxeetako obrak” izeneko kontusailaren betetze-mailari eta aplikazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2008ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari María Victoria Arraiza Zorzanok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu dio Hezkuntza kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zioen azalpena

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak 1.000.000 euroko ondoko zuzenketa aurkeztu zion 2008ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorren proiektuari: “Udal jabetzapeko ikastetxeetako obrak”. Zuzenketa onetsi zenez gero, azken irizpenean jasota geratu zen.

Ekitaldi honetako lehen seihilekoa laster bukatuko baita, ondokoa jakin nahi dut:

Zertan da guztira 3.500.000 euro dituen kontusail horren betetzea eta aplikazioa? Egin edo plani-

fikatu al dira obrak udal jabetzapeko ikastetxeetan?

Iruñean, 2008ko ekainaren 6an

Foru parlamentaria: María Victoria Arraiza Zorzano

## **Galdera, “Gaztelania-ingelesa elebitasun plana hedatzea” izeneko kontusailaren betetze-mailari eta aplikazioari buruzkoa.**

*MARÍA VICTORIA ARRAIZA ZORZANO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea María Victoria Arraiza Zorzano andreak aurkeztutako galdera, “Gaztelania-ingelesa elebitasun plana hedatzea” izeneko kontusailaren betetze-mailari eta aplikazioari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Hezkuntza Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2008ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari María Victoria Arraiza Zorzanok, Legebiltzarreko Erregelamen-

duan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu dio Hezkuntza kontseilariari, Hezkuntza Batzordean ahoz erantzun dezan:

Zioen azalpena

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak 500.000 euroko ondoko zuzenketa aurkeztu zion 2008ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorren proiektuari: “Gaztelania-ingelesa elebitasun plana hedatzea”. Zuzenketa onetsi zenez gero, azken irizpenean jasota geratu zen.

Ekitaldi honetako lehen seihilekoa laster bukatuko baita, ondokoa jakin nahi dut:

Zertan da kontusail horren betetzea eta aplikazioa eta, hortaz, Hezkuntza Departamentuak zer asmo edo denbora-plangintza du hezkuntza eredu horri dagokionez?

Iruñean, 2008ko ekainaren 6an

Foru parlamentaria: María Victoria Arraiza Zorzano

## **Galdera, “Lanbide heziketako ikastetxe publikoetako ekipamendua” izeneko kontusailaren betetze-mailari eta aplikazioari buruzkoa.**

*MARÍA VICTORIA ARRAIZA ZORZANO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea María Victoria Arraiza Zorzano andreak aurkeztutako galdera, “Lanbide heziketako ikastetxe publikoetako ekipamendua” izeneko kontusailaren betetze-mailari eta aplikazioari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Hezkuntza Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2008ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari María Victoria Arraiza Zorzanok, Legebiltzarreko Erregelamen-

duan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu dio Hezkuntza kontseilariari, Hezkuntza Batzordean ahoz erantzun dezan:

Zioen azalpena

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak 1.000.000 euroko ondoko zuzenketa aurkeztu zion 2008ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorren proiektuari: “Lanbide heziketako ikastetxe publikoetako ekipamendua”. Zuzenketa onetsi zenez gero, azken irizpenean jasota geratu zen.

Ekitaldi honetako lehen seihilekoa laster bukatuko baita, ondokoa jakin nahi dut:

Zertan da 2.000.000 euroko kontusail horren betetzea eta aplikazioa eta, hortaz, horren helburu berriazkoen erdiestea?

Iruñean, 2008ko ekainaren 6an

Foru parlamentaria: María Victoria Arraiza Zorzano

## **Galdera, “Ikastetxe berriak eraikitzea eta egokitzapen obrak egitea” izeneko kontusailaren betetze-mailari eta aplikazioari buruzkoa.**

*MARÍA VICTORIA ARRAIZA ZORZANO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea María Victoria Arraiza Zorzano andreak aurkeztutako galdera, “Ikastetxe berriak eraikitzea eta egokitzapen obrak egitea” izeneko kontusailaren betetze-mailari eta aplikazioari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2008ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari María Victoria Arraiza Zorzanok, Legebiltzarreko Erregelamen-  
duan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu dio Hezkuntza kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zioen azalpena

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak 4.240.000 euroko ondoko zuzenketa aurkeztu zion 2008ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorren proiektuari: “Ikastetxe berriak eraikitzea eta egokitzapen obrak egitea”. Zuzenketa onetsi zenez gero, azken irizpenean jasota geratu zen.

Ekitaldi honetako lehen seihilekoa laster bukatuko baita, ondokoa jakin nahi dut:

Zertan da guztira 14.045.000 euro dituen kontusail horren betetzea eta aplikazioa? Bete edo

planifikatu al da ikastetxe berriak eraikitzea edo egokitzapen obrak egitea?

Iruñean, 2008ko ekainaren 6an

Foru parlamentaria: María Victoria Arraiza Zorzano

---

## **Galdera, “0tik 3 urtera bitarteko haurrak eskolatzeko udalekin izenpeturiko hitzarmenak” izeneko kontusailaren betetze-mailari eta aplikazioari buruzkoa.**

*MARÍA VICTORIA ARRAIZA ZORZANO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea María Victoria Arraiza Zorzano andreak aurkeztutako galdera, “0tik 3 urtera bitarteko haurrak eskolatzeko udalekin izenpeturiko hitzarmenak” izeneko kontusailaren betetze-mailari eta aplikazioari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2008ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari María Victoria Arraiza Zorzanok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu dio Hezkuntza kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zioen azalpena

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak 4.000.000 euroko ondoko zuzenketa aurkeztu zion 2008ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorren proiektuari: “0tik 3 urtera bitarteko haurrak eskolatzeko udalekin izenpeturiko hitzarmenak”. Zuzenketa onetsi zenez gero, azken irizpenean jasota geratu zen.

Ekimen horren helburuen artean dago 0tik 3 urtera bitarteko ikastetxe gehiago eskaintzea familiei, egungo gizartearen beharrezanei erantzute aldera.

Ekitaldi honetako lehen seihilekoa laster bukatuko baita, ondokoa jakin nahi dut:

Zertan da 8.000.000 euroko kontusail horren betetzea eta aplikazioa eta, hortaz, horren helburu berariazkoen erdiestea?

Iruñean, 2008ko ekainaren 6an

Foru parlamentaria: María Victoria Arraiza Zorzano

## **Galdera, “Nafarroako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren funtzionamendurako transferentziak” izeneko kontusailaren betetze-mailari eta aplikazioari buruzkoa.**

*JUAN JOSÉ LIZARBE BAZTÁN JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan José Lizarbe Baztán jaunak aurkeztutako galdera, “Nafarroako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren funtzionamendurako transferentziak” izeneko kontusailaren betetze-mailari eta aplikazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Ekonomia eta Ogasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2008ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztánek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera hau aurkeztu dio Legebiltzarreko Mahaiari, batzordean ahoz erantzuteko:

Galderaren testua

Zein da 100.000 euro dituen ondoko kontusailaren betetze-maila: “Nafarroako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren funtzionamendurako transferentziak” (110000 11000 4819 923400 kodea)? Hein batean baino ez bada bete, edo ez baldin bada bete, zer arrazoi dago ez betetzeko? Zer asmo du Gobernuak zenbatekoa osorik betetzeari dagokionez eta kontusail horren zioetan adierazitakoa betetzeari dagokionez?

Iruñean, 2008ko ekainaren 6an.

Foru parlamentaria: Juan José Lizarbe Baztán

## **Galdera, “Abeltzaintzako ingurumen laguntzak. PDR-FEADER” izeneko kontusailaren betetze-mailari eta aplikazioari buruzkoa.**

*MARÍA GRACIA IRIBARREN RIBAS ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Gracia Iribarren Ribas andreak aurkeztutako galdera, “Abeltzaintzako ingurumen laguntzak. PDR-FEADER” izeneko kontusailaren betetze-mailari eta aplikazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2008ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari M.<sup>a</sup> Gracia Iribarren Ribasek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu dio Landa Garapenerako eta Ingurumeneko kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zioen azalpena

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko zuzenketa aurkeztu zion 2008ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorren proiektuari: “Abeltzaintzako ingurumen laguntzak. PDR-FEADER”. Zuzenketa onetsi zenez gero, azken irizpenean jasota geratu zen.

Ekitaldi honetako lehen seihilekoa laster bukatuko baita, ondokoa jakin nahi dut:

Zertan da kontusail horren betetzea eta aplikazioa eta, hortaz, horren helburu berariazkoen erdi-

estea?

Iruñean, 2008ko ekainaren 9an

Foru parlamentaria: María Gracia Iribarren Ribas

## **Galdera, “Biosegurtasunerako eta ingurumen-hobekuntzetarako dirulaguntzak abeltzaintzako instalazio intentsiboei” izeneko kontusailaren betetze-mailari eta aplikazioari buruzkoa.**

*MARÍA GRACIA IRIBARREN RIBAS ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea María Gracia Iribarren Ribas andreak aurkeztutako galdera, “Biosegurtasunerako eta ingurumen-hobekuntzetarako dirulaguntzak abeltzaintzako instalazio intentsiboei” izeneko kontusailaren betetze-mailari eta aplikazioari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2008ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari M.<sup>a</sup> Gracia Iribarren Ribasek, Legebiltzarreko Erregelamenduan

ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu dio Landa Garapenerako eta Ingurumeneko kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zioen azalpena

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko zuzenketa aurkeztu zion 2008ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorren proiektuari: “Biosegurtasunerako eta ingurumen-hobekuntzetarako dirulaguntzak abeltzaintzako instalazio intentsiboei”. Zuzenketa onetsi zenez gero, azken irizpenean jasota geratu zen.

Ekitaldi honetako lehen seihilekoa laster bukatuko baita, ondokoa jakin nahi dut:

Zertan da kontusail horren betetzea eta aplikazioa eta, hortaz, horren helburu berariazkoen erdiestea?

Iruñean, 2008ko ekainaren 9an

Foru parlamentaria: María Gracia Iribarren Ribas



## **Galdera, “Nekazaritzako elikagaien lehiakortasun, kalitate eta segurtasunari buruzko plana” izeneko kontusailaren betetze-mailari eta aplikazioari buruzkoa.**

*MARÍA GRACIA IRIBARREN RIBAS ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Gracia Iribarren Ribas andreak aurkeztutako galdera, “Nekazaritzako elikagaien lehiakortasun, kalitate eta segurtasunari buruzko plana” izeneko kontusailaren betetze-mailari eta aplikazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2008ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari M.<sup>a</sup> Gracia Iribarren Ribasek, Legebiltzarreko Erregelamenduan

ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu dio Landa Garapenerako eta Ingurumeneko kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zioen azalpena

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko zuzenketa aurkeztu zion 2008ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorren proiektuari: “Nekazaritzako elikagaien lehiakortasun, kalitate eta segurtasunari buruzko plana.” Zuzenketa onetsi zenez gero, azken irizpenean jasota geratu zen.

Ekitaldi honetako lehen seihilekoa laster bukatuko baita, ondokoa jakin nahi dut:

Zertan da kontusail horren betetzea eta aplikazioa eta, hortaz, horren helburu berariazkoen erdi-estea?

Iruñean, 2008ko ekainaren 9an

Foru parlamentaria: María Gracia Iribarren Ribas

## **Galdera, jakiteko zergatik Hezkuntza Departamentuak zenbait aholkulari lanpostu kendu dituen foru erkidegoko Irakasleentzako Laguntza Zentroetan.**

*PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko zergatik Hezkuntza Departamentuak zenbait aholkulari

lanpostu kendu dituen foru erkidegoko Irakasleentzako Laguntza Zentroetan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2008ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurak, Legebiltzarreko erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Hezkuntza Departamentuak zergatik kendu ditu zenbait aholkulari lanpostu Foru Komunitate-

ko Irakasleentzako Laguntza Zentroetan? Gobernuko lehendakariak inbestidura hitzaldian agindu zuen Irakasleentzako Laguntza Zentroak indartuko zituela. Hori al da agindu hura betetzeko modua?

Iruñean, 2008ko ekainaren 10ean

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

---

## **Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak ba ote duen asmorik bizikletaren plan zuzendaria onesteko.**

**ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak ba ote duen asmorik bizikletaren plan zuzendaria onesteko.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2008ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ion Erro Armendárizek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, dagokion batzordean ahoz erantzuteko:

Nafarroako Parlamentuak, 2003ko otsailaren 27an egindako Osoko Bilkuran, Ezker Batuaren mozio bat onetsi zuen aho batez. Haren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatu zuen Bizikletari buruzko plan zuzendaria aurkeztean, ondokoa helburu: neurriak definitu eta aplikatzea gure erkidegoan bizikletaren erabilera areagotzeko, bai ohiko garraio gisa, bai aisialdirako eta turismorako nahiz kirolerako ere. Orobat premiatu zen aipatu plana Legebiltzarrera igorrez, eztabaidatzeko eta taldeen ekarpenekin onesteko. Ekimen hura berriz aurkeztu zen, bai eta aho batez onetsi ere, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Batzordean, 2004ko martxoaren 10ean.

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak 2007ko otsailaren 28an eginiko agerraldian –Legebiltzarrak erabakia onetsi eta lau urte eta egun bat geroago, alegia–, Burguete jaunak adierazi zuen Bizikletari buruzko plan zuzendaria bi fasetan prestatzen ari zirela; lehen-dabizikoa, bukatua baitzegoen, diagnostia egin eta lan-ildoak definitzera zegoen bideratuta; bigarrenari zegokionez, proposamenak zehaztekoari, alegia, adierazi zuen ordurako bazegoela Bizikletari buruzko plan zuzendariaren lehen aurrerapen bat, zeinak jasotzen baitzituen zenbait azpiegitura bizikletaren kirol-, hiri- nahiz aisia-erabilerarako –guztira, lehentasunezko 744 kilometro Nafarroa osoko hamar ibilbidetan–, planaren balioespen ekonomikoa egiten ari zela eta bazela planaren kudeaketari buruzko proposamen bat. Kontseilariak iragarri zuen berehala onetsiko zela Bizikletari buruzko plan zuzendaria, eta bere asmoa zela Legebiltzarrera igortzea, eztabaidatzeko.

15 hilabete baino gehiago igaro dira harrezkeror, eta, guk dakigunez behintzat, Nafarroako Gobernuak ez du bizikletari buruzko planik onetsi, eta ez du Legebiltzarrera igortzeko asmorik erakutsi. Hori dela eta, hauxe jakin nahi dugu:

– Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik Legebiltzar honek 2003ko otsailaren 27an agindu ziona bete eta Bizikletari buruzko plan zuzendaria behin betikoz onesteko? Noiz?

– Nafarroako Gobernuak ba al du borondate-rik, Bizikletari buruzko plan zuzendaria behin onetsita, Nafarroako Parlamentura igortzeko, eztabaidatu eta onets dadin?

Iruñean, 2008ko ekainaren 10ean

Foru parlamentaria: Ion Erro Armendáriz

## **Galdera, Bideko Ama Birjina Ospitaleko langile batzuek ospitale inguruan bizikletak uzteko gune estali bat eskatuz aurkeztu duten idazkiari buruzkoa.**

### *ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztutako galdera, Bideko Ama Birjina Ospitaleko langile batzuek ospitale inguruan bizikletak uzteko gune estali bat eskatuz aurkeztu duten idazkiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2008ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ion Erro Armendárizek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, dagokion batzordean ahoz erantzuteko:

Hedabideetan ekainaren 10ean agertu zen gutun baten bidez, Bideko Ama Birjina Ospitaleko langile talde batek salatu zuen ospitaleko eta Osasunbideko zuzendaritzak ez diola erantzun ospitale horretako 695 langilek ospitaleko zuzendaritzari igorritako idazki bati, zeinaren bidez eskatzen bai-

tzuten gune estali bat presta dezaten ospitalearen ingurunean bizikletak aparkatzeko, ospitalera joateko garraiobide gisa sustatze aldera bizikleta, garraiobide baliagarri gisa bai langileentzat, bai ospitalearen erabiltzaileen parte handi batentzat ere.

Iruñeko Udalak nahiz Nafarroako Gobernuak bizikletaren eguna ospatzen dute ekainaren 13an, bizikletaren erabileraren onurak gizarteratze aldera eta haren erabilera eragingarria izan dadin ekimenak sustatzeko konpromisoa gizarteratze aldera; hortaz, paradoxikoa da aurkeztu den eskaera zehatz hori, langile kopuru handi batek egina, erantzun gabe geratu izana.

Horrenbestez, hauxe jakin nahi dugu:

– Nafarroako Gobernuak ba al du Bideko Ama Birjina Ospitaleko 695 langilek aurkeztutako idazkiaren berri, zeinaren bidez eskatu baitzuten ospitale inguruan bizikletak uzteko gune estali bat prestatzeko?

Idazki horren berri baldin badu, zergatik ez zaio erantzun eskaera horri?

– Osasun Departamentuak ba al du asmorik gune estaliak prestatzeko, bizikleten aparkaleku gisa, gure erkidegoko osasun zentroen inguruan, garraiobide osasuntsu horren erabilera erraztea helburu?

Iruñean, 2008ko ekainaren 10ean

Foru parlamentaria: Ion Erro Armendáriz

## **Galdera, bizikletaren plan zuzendaria prestatzera bideratutako kontusailaren betetze-mailari buruzkoa.**

*ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztutako galdera, bizikletaren plan zuzendaria prestatzera bideratutako kontusailaren betetze-mailari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2008ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ion Erro Armendárizek, Legebiltzarreko Erregulamentuan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, dagokion batzordean ahoz erantzuteko:

Nafarroako Parlamentuak, 2003ko otsailaren 27an egindako Osoko Bilkuran, Ezker Batuaren mozio bat onetsi zuen aho batez. Haren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiau zuen Bizikletari buruzko plan zuzendaria aurkez zezan, ondokoa helburu: neurriak definitu eta aplikatzea gure erkidegoan bizikletaren erabilerareagotzeko, bai ohiko garraio gisa, bai aisialdirako eta turismorako nahiz kirolerako ere. Orobat premiau zen aipatu plana Legebiltzarrera igor zezan, eztabaidatzeko eta taldeen ekarpenekin onesteko. Ekimen hura berriz aurkeztu zen, bai eta aho batez onetsi ere, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Batzordean, 2004ko martxoaren 10ean.

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak 2007ko otsailaren 28an eginiko agerraldian –Legebiltzarrak erabakia onetsi eta lau urte eta egun bat geroago, alegia–, Burguete jaunak adierazi zuen Bizikletari buruzko plan zuzendaria bi fasetan prestatzen ari zirela; lehendabizikoa, bukatua baitzegoen, diagnosis egin eta lan-ildoak definitzera zegoen bideratuta; bigarrenari zegokionez, proposamenak zehaztekoari, alegia, adierazi zuen ordurako bazegoela Bizikletari buruzko plan zuzendariaren lehen aurrerapen bat, zeinak jasotzen baitzituen zenbait azpiegitura bizikletaren kirol-, hiri- nahiz aisia-erabilerarako –guztira, lehentasunezko 744 kilometro Nafarroa osoko hamar ibilbidetan–, planaren balioespen ekonomikoa egiten ari zela eta bazela planaren kudeaketari buruzko proposamen bat. Kontseilariak iragarri zuen berehala onetsiko zela Bizikletari buruzko plan zuzendaria, eta bere asmoa zela Legebiltzarrera igortzea, eztabaidatzeko.

2008ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorren Foru Legean bada 150.000 euroko kontusail bat, zuzenketa bidez aho batez onetsia –Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentua, Ingurumena kudeatzeko programa eta Ingurumen-kalitateari buruzko proiektua, 74100 74001 6092456202 kodea–, Bizikletari buruzko plan zuzendarirako.

Horrenbestez, hauxe jakin nahi dugu:

– Zein da kontusail horren betetze maila 2008ko ekainaren 10ean?

– Kontuan hartuta Parlamentuak Bizikletari buruzko plan zuzendaria egitera premiau zuen erabakia onetsi eta bost urte geroago Gobernuak ez duela plana onetsi, Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentuak zer gastu-aurreikuspen du 2008rako, kontusail horri dagokionez?

Iruñean, 2008ko ekainaren 10ean

Foru parlamentaria: Ion Erro Armendáriz

## **Galdera, jakiteko Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak udalak aholkatzen dituen, elizbarrutia ondasun publikoak bere izenean jartzen ari dela ikusirik.**

### *PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak udalak aholkatzen dituen, elizbarrutia ondasun publikoak bere izenean jartzen ari dela ikusirik.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2008ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra, Legebiltzarreko erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Galderaren testua

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentua aholkua ematen ari al zaie Nafarroako udalei, beren interesak defendatu ahal izan ditzaten, Eliza Katolikoko Iruñeko elizbarrutia ondasun publikoak bere izenean jartzen ari dela ikusirik?

Iruñean, 2008ko ekainaren 12an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

## **Galdera, Nasuinsaren eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren arteko deskoordinazioari buruzkoa, Sarrigurengo osasun zentroa dela eta.**

### *ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkeztutako galdera, Nasuinsaren eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren arteko deskoordinazioari buruzkoa, Sarrigurengo osasun zentroa dela eta.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2008ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osasun kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Osasun Departamentuak Sarrigurengo osasun etxeari buruz igorri zidan espedientea aztertuta, ondokoa jakin nahi dut:

Zer arrazoi dago Nasuinsaren eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Oinarrizko Osasun Laguntzaren artean koordinaziorik ez egoteko osasun etxearen beharrezko dagokiez? Zer ondorio ekonomiko izanen ditu Tellechea & Fernández Militino Arquitectos, S.L.ri hasiera batez esleitutako proiektua berriz ere egin behar?

Iruñean, 2008ko ekainaren 12an.

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde y Lazkano

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde andreak,

## **Galdera, “Erantzukizun sozial korporatiboa sustatzeko programa” izeneko kontusailaren betetze-mailari eta aplikazioari buruzkoa.**

### *GALDERA ERRETIRATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. María Chivite Navascués andreak aurkezturiko galdera, “Erantzukizun sozial korporatiboa sustatzeko programa” izeneko kontusailaren betetze-mailari eta aplikazioari buruzkoa, erretiratu

izanaren berri izan zuela adieraztea. Galdera hori 2008ko ekainaren 13ko 55. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2008ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

---

## **Galdera, Barne Ministerioarekin sinatutako protokoloa, espetxe berria eraikitzeari buruzko asmoen gainekoa, ez bidaltzearen arrazoiei buruzkoa.**

### *IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, Barne Ministerioarekin sinatutako protokoloa, espetxe berria eraikitzeari buruzko asmoen gainekoa, ez bidaltzearen arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutako jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak idatziz erantzun dezan.

Espetxe berriak Santaluziagañan izanen duen ingurumen-inpaktuari buruzko galdera:

2005eko ekainaren 28an eginiko agerraldian, konprometitu zinen Nafarroako Parlamentura ekartzera Barne Ministerioarekin sinatutako asmoen protokoloa, espetxe berria eraikitzekoa. Zer arrazoi egon da edo dira protokolo hori Legebiltzarre ez ekartzeko?

Iruñean, 2008ko ekainaren 6an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

## **Galdera, Nafarroako Gobernuak errepideetako arekak, belarrak eta sasiak garbitzeko duen jarduera-protokoloari buruzkoa.**

*AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak errepideetako arekak, belarrak eta sasiak garbitzeko duen jarduera-protokoloari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaien:

Nafarroako Gobernuak zer jarduera-protokolo darabil errepideetako arekak, belarrak eta sasiak garbitzeko?

Nafarroako Gobernuak noiz garbituko ditu NA-4015 errepideko arekak, belarrak eta sasiak Gorritaran aldean?

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

## **Galdera, jakiteko zer xederi erantzuten dion Nafarroako administrazio publikoetako langileak euskaraz prestatzeko eskumenak eta eginkizunak bi unitatetan banatzeak.**

*PAULA KASARES CORRALES ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Paula Kasares Corrales andreak aurkeztutako galdera, jakiteko zer xederi erantzuten dion Nafarroako administrazio publikoetako langileak euskaraz prestatzeko eskumenak eta eginkizunak bi unitatetan banatzeak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Paula Kasares, Nafarroa Bai taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren arabera, Nafarroako Administrazio Publikoetako langileen euskarazko prestakuntza dela eta, ondoko galdera hauek egin nahi ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaien.

Zioak

2000 urtean, Lehendakaritza eta Barne Departamentuko Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuan (NAPIn) Euskara eta Hizkuntza Komunitarioen Zerbitzua sortu zen eta horri atxiki zitzaion Euskaltegia edo Prestakuntza bulegoa.

2007an, Euskarabidea sortuta, NAPIn zeuden erdi mailako 20 euskara teknikari eta administrari

bat Euskarabideko Euskararen Garapenerako Zerbitzuko Euskarazko Prestakuntza atalari atxiki zituzkioten. Prestakuntza bulegoa, aldiz, NAPIri atxikita utzi zuten, 3 euskara teknikari zituela.

Hori horrela, honako hau da parlamentari horrek jakin nahi duena:

Zer xederi erantzuten dio Nafarroako Administrazio Publikoetako langileak euskaraz prestatzeko

eskumenak eta eginkizunak bi unitatetan banatzeak?

Banaketa horrek hobetzen al ditu lehen zegoen antolaketa modua eta ematen den zerbitzuaren kalitatea?

Iruñean, 2008ko ekainaren 11n

Foru parlamentaria: Paula Kasares Corrales

## **Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak zer iritzi duen Urrobi ibaiko urek bainurako duten kalitatearen gainean aurkeztu den 2007ko txostenari buruz.**

*AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko ekainaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak zer iritzi duen Urrobi ibaiko urek bainurako duten kalitatearen gainean aurkeztu den 2007ko txostenari buruz.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejerek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako

galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaien:

Urrobi ibaia, zeina Ibañetako mendatearen hegoaldeko isurialdean sortzen baita eta Iratira isurtzen baititu urak 30 bat kilometroan Orreaga, Auritz eta Artzibar osoa zeharkatu ondoren, bainatzeko ezegokia dela deklaratu du Europar Batasunak. Hala jasotzen du ingurumen komisario Stavros Dimasek aurtengo ekainaren 2an aurkeztutako 2007ko txostenak, bainatzeko uren kalitateari buruzkoak.

Hori guztia dela-eta, parlamentari honek honakoa jakin nahi du:

– Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du bainatzeko uren kalitateari buruz ingurumen komisario Stavros Dimasek aurkeztutako 2007ko txostena dela eta?

– Nafarroako Gobernuak zer neurri hartuko ditu Urrobi ibaiko uren kalitatea hobetzeko?

Iruñean, 2008ko ekainaren 12an.

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero